

ANE LABAKA. INES OSINAGA. EIDER RODRIGUEZ. ANARI. ANJE OREGI.
XABI ZEBERIO. MIXEL DUCAU. ALAIA PHILIPS. MIXEL ETXEKOPAR.
MADDI OIHENART. JUANTXO ZEBERIO. UXUE ALBERDI. ONINTZA ENBEITA.

SORMEN<LDIA

MUSIKA / TEATROA / BERTSOLARITZA / LITERATURA / ZINEMA
PERFORMANCEA / DANTZA TAILERRA

LEKEITIO
Ekainak 24-26

**MARKINA
-XEMEIN**
Uztailak 1-3

2026
PROGRAMAZIOA

Antolatzailea:

LOR<LDIA
EUSKAL KULTURA GAUR

Elkarrekin:

LEKEITIO
EUSKAL KULTURA GAUR

MX
MARKINA
-XEMEIN

Bizkaia
EUSKAL KULTURA GAUR

LABORAL
KUTXA

Laguntzaileak:


DANOBAT

naiz:



ANE LABAKA
INES OSINAGA
EIDER RODRIGUEZ
ANARI
ANJE OREGI
XABI ZEBERIO
MIXEL DUCAU
ALAIA PHILIPS
MIXEL ETXEKOPAR
MADDI OIHENART
JUANTXO ZEBERIO
UXUE ALBERDI
ONINTZA ENBEITA

SARRERAK



LORALDIA.EUS/PLAZA

LEKEITIO
Ekainak 24-26

OLATU BERRI BAT

Orain dela lau urte, Loraldia errotu zen Lekeition. Alez ale, hostoz hosto, ari da etorkizuneko sorkuntza sustatzen kostaldeko herrian. Arnasgune bat da itsaso ondoan. Arnasa betean ari gara lanean. Euskal kulturaren eragile gehienek “olatu berri bat” eskatzen dabiltzan denboretan, Loraldiak lorratza utzi nahi du kultur eremuan. Herrigintza jokoan dago eta.

Bertsolaritzaren azken joera. Musika, poesia eta bertsoa uztartzen duten sorkuntza “Hezur berriak” ikuskarian islatuko da. Eider Rodriguezen idazkiak eta Anariren kantak gurutzatzen diren lekuan “Ipuin bat kantatua” plazaratuko da. Azkenik, lehen Pizkundera sustatu zuen protagonista izango dugu eszenan. Anton Abadia ezagutzeko paradak gure baloreak gogora ekartzeko aukera emango du, ezinezko bitzita baten kontaketa bitartez.

Olatuak hirunaka datoz. Lekeition hiru olatu berri altxatuko dira, haizearen menean.

MARKINA-XEMEIN

Uztailak 1-3

IPAR HAIZEAK

Lekeitiotik Markina-Xemeinera abiatuko gara uztailaren hasieran. Ipar Haizeek joko dute Markina-Xemeineko haize-arrosan. Anton Abadiak zabaldu ditu ateak eta Markina-Xemeingo hiru jardunalditan Zuberoa izango da iparorratza.

Mixel Etxekopar euskal sortzailerik emankorrenetako bat dugu. Zuberoako dantzak Parisera heldu ziren bezalaxe, Markina-Xemeinera helduko dira eta bertokook arituko dira jauzietan. Orain dela 25.000 urteko xirulari ekingo dio, etorkizuneko soinua sortuz eta dokumental baten bidez txoriekin nola aritzen den hizketan ikusiko dugu. Garaikide oso.

Honez gain, Maddi Oihenarten ahots gardenarekin gozatu ederra hartuko dugu. “Lur” jarri diote izen proiektuari. Gogo baten adierazpena. Tekleetan Juantxo Zeberioak lagunduko dio. Ipar Haizeak gozo eta eder joko du Markina aldean.



**OLATU
BERRI BAT**

LEKEITIO
Ekainak 24

HEZUR BERRIAK

ANE LABAKA, INES OSINAGA, UXUE
ALBERDI ETA ONINTZA ENBEITA

IKUSGARRI ARETOA 20:00
10€ (LORAZAINAK 8€)

BERTSOLARITZA
ETA MUSIKA

70 MIN



Ez dira gutxi izan bertsoa beste sormen diziplina batzuekin uztartzeko egin izan diren saiakerak. Azken urteetan, gainera, ugaritu egin dira zenbait bertsolari eta idazlek gidatutako bertso-saio literarioak; Uxue Alberdiren Dendaostekoak liburuan ardaztutakoa edo Miren Amurizaren Pleibak-en ingurukoa, kasu.

Saio honetan Ane Labakaren lehen poema liburuaren testu hautatuen irakurketa musikatuak eta bat-bateko bertsoaldiak tartekatuko dira. “Hezur berriak” poema liburua haurdunaldian zehar eta erdi ondoko lehen hilabeteetan idatzitako testu txatalekin dago osatuta eta amatasunaren ertzez, anibalentziez, kargez eta esanezinez dihardu. Bertso saio literario honek, beraz, aukera bat izan nahi du ama diren bertsolariekin batera hori dena oholzaratzen saiatzeko.

Esan bezala, poemak Ane Labakak idatzi ditu, musika Ines Osinagak jarriko du eta bertso inprobisatuak ontzen bi bertsolari: Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita.

*Emanaldia bukatutakoan solasaldia izango da sortzaileekin.

LEKEITIO
Ekainak 25

IPUIN BAT KANTATUA

EIDER RODRIGUEZ
ETA ANARI

AZKUE ARETOA 19:00
8€ (LORAZAINAK 5€)



Ipuinak kontatzeko sortu ziren eta ahozko tradizioan barna iritsi zitzaizkigun, idatziak izan baino askoz lehenago. Eta ipuinak kontatu ez zizkiguten hainbat umek ere entzuteari utzi genion heldu ginenean.

Erredentzio ariketa bat litzateke, ipuinak berriro kontatzea eta kantatzea, eta entzutea. Irakurtaldi honetarako, Eider Rodriguezek "Dena zulo bera zen" bere azken liburuko ipuin bat aukeratu du eta Anarik bere ibilbide osoko zenbait kantu aukeratu eta narrazioaren barrutik kantatzen ditu; ipuina eta kantua batuz, oraindik izenik jarzten asmatu ez duten beste eremu literario bat proposatuz.

*Emanaldia bukatutakoan solasaldia izango da sortzaileekin.

LEKEITIO
Ekainak 26

ANTON ABADIA

DUBLINETIK HENDAIARA

ANJE OREGI, MIXEL DUCAU,
XABI ZEBERIO ETA ALAIA PHILIPS

IKUSGARRI ARETOA 20:00
10€ (LORAZAINAK 8€)

MUSIKA ETA
TEATROA
60 MN

1853ko udaberria zen eta Anton Abadia esploratzailea, geografoa, astronomoa eta kulturgilea, kezkatuak zegoen euskal kultura nola piztu behar hausnartzen. Erromantikoa zen Abadia eta Euskal Pizkundean sustatzailea. Aipatu urte hartan, musika, dantza eta batik bat euskal poesiari buruzko jardunaldiak antolatzea otu zitzaion. Horrelaxe sortu ziren aurreneko Euskal Lore Jokoak. Pizkundez pizkunde, Loraldiara heldu gara. Lekukoa hartu dugu euskal kultura garaikidea plazaratzeko.

Horrela sortu zen “Anton Abadia. Dublinetik Hendaiara” izeneko sorkuntza, orain dela 11 urte eta Aitor Mazoren eskutik. Patxo Telleriak idatzi zuen dramaturgia berriro hartu eta Anje Oregi aktore lekeitiarrari eman diogu aukera “ezinezko pertsonaia” hori taularatzeko. Benetan ezinezko bizitza bat kontatuko dugu. Dublinen jaio zen euskaldunaren bizitakoak zur eta lur utziko baikaitu.

Sormenak teatroa eta musika uztartzen ditu eszenan bertan. Musikari dagokionez, Xabi Zeberio eta Mixel Ducau bikoteak sortutako soinu bandak ornituko du teatro bakarriketa. Itzal luzeko bi musikagilerekin batera Alaia Phillips Ducauren emakumezko boza bat izango da kantuan aritzeko. Kantuek irudikatuko dituzte Anton Abbadiaren bizitza pasarteak.

* Emanaldian sortzailearekin izango dugu solasaldi txiki bat.



**IPAR
HAIZEAK**

SORMENKLDIA
PROGRAMAZIOA

SARRERAK: LORALDIA.EUS/PLAZA

MARKINA-
XEMEIN

Uztailak 1

ZUBEROAKO DANTZA TAILERRA

TRANSMISIO
TAILERRA

120 MIN

MIXEL ETXEKOPAR

UHAGON KULTURGUNEA 18:30
5€ (LORAZAINAK 3€)

Zuberoako dantzak eta doinuak gorde dira mendez mende gure Ekialdean. Gure kulturaren altxorrik preziatuenetako bat dira. Maskaradak eta Pastoralak ditugu adibide.

Mixel Etxekopar musikariak eten gabe ari da esku hartzen herri kultura horretan eta erreferente bat da. Markina-Xemeinera etorriko zaigu, Zuberoako jauziak eta melodiak transmititzeko gogoarekin.

MARKINA- XEMEIN

Uztailak 2

XIBEROA KANTUZ LORATURIK

TXORIEKIN HIZKETAN

FILM LABURRA

UHAGON KULTURGUNEA 19:30

DOAN

Goizero kantuz loratzen dira Xiberoako lurretan. Tradizioaren gotorleku eta sormenaren lurralde. Non denborak atsedean hartzen duen, eta libertateak arnas. Bortitz bezain eder, anitz bezain hertsu. "Xiberoa Kantuz Loraturik" Loraldiak ekoiztu zuen ikuskizun eder bat da eta bertako protagonistek ongi dakite iraganaren ondarea lanabes izan eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzea zer den. Ekoizpen horren sormen prozesuari eskainitako ikus-entzunezko begirada eta herrialde baten emozioen lekukotza da dokumental labur hau.

Larraitz Zuazo eta Ane Rotaetxe zinegileek sinatzen dute zinta eta ikuskariaren sormen prozesuarekin batera grabatu zen.



ZINEMA ETA
JOLASALDIA

30 MIN • 15 MIN

SORMEN<LDIA
PROGRAMAZIOA

SARRERAK: LORALDIA.EUS/PLAZA

MARKINA- XEMEIN

Uztailak 2

MIXEL ETXEKOPAR

PERFORMANCE MUSIKATUA

UHAGON KULTURGUNEA 20:30
10€ (LORAZAINAK 8€)



PERFORMANCE
MUSIKATUA

50 MIN

Mixel Etxekoparren sormenak ez du mugarik. Euskal Herriko Atlas Geopoetikoa ondu zuen Pierre Vissler lagunarekin batera. Txoriekin badu harreman estua, hegaztiekin saiätzen baita berba egiten. Horregatik, ikuskarietan txorien kanta beti dago entzungai.

Gotaine-Iribarnen jaio zen eta musika ikerkuntzan ez du atsedeenik hartu. Isturitzeko hiru zuloko xirulak Europako musika tresnarik zaharrenetako bat da. Etxekoparrek kopia bat eraiki zuen hegazti baten hezur bat erabiliz, orain dela 25.000 urte bezalaxe. Antzinako sormena garaikide bihurtzen du. Lurretik eta zerutik hartzen du inspirazio-iturria, gaurko sormen-begirada sortzeko.

Gustuko du arlo perfomatiboa. Aske sortzea. Inprobisatzea. Esploratzea. Harrituko gaituen sorkuntza bat plazaratzea.

MARKINA- XEMEIN

Uztailak 3

LUR

MADDI OHIENART ETA
JUANTXO ZEBERIO

UHAGON KULTURGUNEA 20:00
10€ (LORAZAINAK 8€)



Maddi Oihenart, euskal musika herrikoia-aren ahotsik liluragarriena-tako bat, Juantxo Zeberio Etxetxipia musikagilearekin elkartu da berriz, tradizioa eta garaikidea uztartzen dituen proiektu intimo eta hunkigarri batean. Lan berri honi “Lur” jarri diote izen eta dozena kantu berri biltzen ditu.

Sorkuntza honetan poesiak eta musika tresnen biluztasunak bidea ematen diote Maddi Oihenarten ahots garbi, infinitu eta pertsonalari, emozio hutsez beteriko unibertso batean.

Kantuen berbak Itxaro Borda eta Leire Bilbao idazleek idatzitako testuekin osatu dira, baina baita Maddi eta Juantxo beraiek ere idatzitakoekin.

Zuberoako kantu herrikoiak, Maddik eta Juantxok sorturikoak, eta baita Mikel laboaren “Lili bat” kantuaren bertsio gozo bat ere entzun ahal izango ditugu kontzertuan.

Kantuak lurrin fresko eta gardenez blaituta datoz, naturaren edertasuna eta gizakiaren barne-mundua uztartuz. Inspirazio iturriak askotarikoak izan dira: Zuberoako basoak, bertako bizimodua, euskara, emakumeen aldeko borroka, Palestinako genozidioa eta planetarekiko kontzientzia ekologikoa.

LOR<LDIA PLAZA

Antolatzailea:

LOR<LDIA
EUSKAL KULTURA GAUR

Babesleak:



Laguntzaileak:



LOR<LDIA
EUSKAL KULTURA GAUR